



# Hiru sagu eta gatura

Gatu handi bat bizi zen Amatziren etxean.

Bestalde, nehork ez bazekien ere, hiru sagu bizi ziren hango zilo ttipi batean: Miki, Mixi eta Tipi.

Biziki alegerak ziren eta arraileria laket zuten.

Gauaz, gatura loak hartzen zuenean, Miki, Mixi eta Tipik meloi, 5  
ogi, haragi eta goxokien bila ibiltzen ziren.

Behin, gauero bezala, hozkailu aldera abiatu ziren isil-isilik. Mikik gasna haundi bat ebatsi zuen; meloia Tipik; ogia azkenik, Mixik. Baina hara non Tipiri meloia erortzen baitzaio lurrera. 10  
Plas, kras, kras!

Gatura iratzarri eta, hiru saguak lasterka hasi ziren ogia, gasna eta meloia utzirik. Zernahi kosta zitzaaien ziloñora sartzea!

Gatura, denbora luzaz barrandan egon ondoan, berriz etzatera joan zen.

Miki, Mixi eta Tipi deus jatekorik gabe gelditu ziren. Beharrik 15  
Mixik baitzituen ogi papur batzuk sakelari sakelari! Hiru saguek hartarik jan zuten.

**arraileria laket** : irri eginaraztea gustuko.

**barrandan** : zain.

Oraino gose zirela, Mixik erran zuen :

– Gaur zerbait jan badugu ere, biharko zer ? Tipiren urtebe-  
20 tetzea da; bazkari gozo bat egin behar dugu eta lagun guziak  
gomitatu.

Mikik orduan :

– Eta nola hartuko ditugu gasna, ogia eta meloia hozkailutik ?  
Gatua zelatan egonen da.

25 Orduan, saguak gogoetatzen hasi ziren, kopet ilun.

Mixik izan zuen ideia :

– Entzun : pix, pix, nik bla, bla, bla, eta gero Mikik : bla, bla,  
pix, pix...

– Zer ideia ona izan duzun, Mixi, erantzun zioten beste bi  
30 saguek. Iupi, iupi ! Zer bazkari ederra eginen dugun !

Hurrengo goizean, Miki eta Mixik gatua deitu zuten :

– Ez gaituzu harrapatuko... ñen, ñen, ñen...

Gatua, berriz, Miki eta Mixi harrapatu nahian, lasterka hasi  
zen. Saguak mahai azpitik pasatu ziren eta, kataplun, plun, plun,  
35 plas, tras ! mahai gainean zegoen guzia lurrera aurtikiz eta arrunt  
puskatuz. Jokoaz asperturik, ziloan sartu ziren eta gatuari :

– Nen, ñen, ñen... ez gaituzu harrapatuko...

Gatuak burua ziloan ezarri zuen orduan ; artean, Ttikik buz-  
tana hartu zion eta argindarraren ziloan sartu. Gatuaren oihuak !

40 – Miau, miau, ai, ai, ai ! Nire buztana ! MIAUUUU !

Sukaldera hurbildu eta hango desmasiari ohartu orduko,  
Amatxik gatua lepotik hartu eta kanpora bota zuen.

Erran bezala, Miki, Mixi eta Tipik lagun guziak gomitatu zituz-  
ten bazkarira. Meloia, sagarra, haragia, gasna, ogia, arnoa eta xan-  
45 paina bildurik, asealdi ederra iragan zuten.

A. CARBONELL, *Irakur 2*,  
Gero, ediciones Mensajero,  
IKASek egokitua.

## ❶ ULERMEN GALDEAK

- Zergatik dio Amatik gau lapurketak gatuarengatik direla ?
- Nola ospatu nahi dute sagu lagunek Tipiren urtebetetzea ?
- Zer izan da saguen ideia gatuaren urruntzeko ?

## ❷ BERRIZ IRAKUR

▶ Hona saguek aipatzen dituzten janari eta edariak. Zoritxarrez baten idaztea ahanzi dugu. Zein ote ?

gasna, meloia, ogia, sagarra, arnoa, xanpaina, .....

▶ Hiru erranaldietarik bik erranahi bera dute. Zein dira ?

*Gatua iratzarri zelakoan, hiru saguak lasterka hasi ziren ogia, gasna eta meloia utzirik.*

*Gatua iratzarri eta, hiru saguak lasterka hasi ziren ogia, gasna eta meloia utzirik.*

*Gatua iratzarri zelarrik, hiru saguak lasterka hasi ziren ogia, gasna eta meloia utzirik.*

▶ Hona testuko erranaldi bat. Ustegabean, hitzak nahasi dira eta ez da ulergarri. Zuzen ezazu.

*Behin, gauero hozkailu aldera bezala, ziren isil-isilik abiatu.*

.....

▶ Pasarte honetan badira bi erranaldi eta puntuazioa galdu da. Behar diren puntuak, kakotxak eta letra nagusiak ezar itzazu.

*gatuak burua ziloan ezarri zuen orduan artean ttikiik buztana hartu zion*

*eta argindarraren ziloan sartu*

▶ Erranaldi hauetako hitz bat, beti bera, kukutua da. Asma ezazu zein den eta erranaldiak berriz idatz.

- Hiru ..... hartarik jan zuten.

- Orduan, ....., gogoetetzen hasi ziren, kopet ilun.

- ..... mahai azpitik pasatu ziren eta, kataplun, plun, plun, tras, tras!  
mahai gainean zegoen guzia lurrera aurtikiz eta arrunt puskatuz.

▶ Ipuinaren bukaera konda ezazu, saguen asealdia nolakoa zen asmatuz.